<u>**GOBERNU BATZARRA**</u>

**2017.10. 30**

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**
**Nerea Letamendia Belloso**
**Jokin Azkue Arrastoa**
**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Beh. Beh. idazkaria:**

**Karmele Contreras Goikoetxea**

**Kontuhartzailetza:**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hogeita hamarrean, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017ko iraila.**

3.- **Tolosako hiri antolamenduko Plan Orokorraren "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua urbanitzatzeko jaurduketa programa. Behin betiko onarpena.**
**Programa de actuación urbanizadora del subambito "6.1 San cosme y San Damian" del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa. Aprobación definitiva.**

**4.- 56-57/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

**1.- <u>Aurreko akta onartzea.</u>**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko urriaren 23an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.-<u>Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017ko iraila.</u>**

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko abenduraren 19an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2017ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

2017ko apirilaren 10ean, Gobernu Batzarrak Tolosaldea Mankomunitateari ordaindu beharreko ekarpen finkoa onartu zuen.

| | |
|---|---|
| Gastu estrukturalak | 189.307,00 |
| Bilketa gastuak | 881.589,00 |
| Tratamendu gastuak | 35.920,00 |

Guztira 1.106.816,00

Bestalde, Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo faktura aurkeztu du.

2017 Iraila 113.991,19

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**: Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo faktura:

2017 Iraila 113.991,19

**BIGARRENA:** Erabakiaren berri ematea Kontuhartzailetzari , Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zebitzuen departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

| | |
|---|---|
| **3.- TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN "6.1 SAN KOSME ETA SAN DAMIAN" AZPIESPARRUA URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMA. BEHIN BETIKO ONARPENA.**<br><br>Gobernu Batzarrak, 2017ko apirilaren 24an egindako batzarraldian, hasierako onarpena eman zion, zenbait baldintzarekin, "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programari.<br><br>Espedientea jendaurrean egon den epealdian ez da alegaziorik aurkeztu. | **3.- PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA DEL SUBAMBITO "6.1 SAN COSME Y SAN DAMIAN" DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE TOLOSA. APROBACIÓN DEFINITIVA.**<br><br>La Junta de Gobierno, en sesión celebrada el día 24 de abril de 2017, aprobó inicialmente, con una serie de condiciones el Programa de Actuación Urbanizadora del subambito "6.1 San Cosme y San Damian".<br><br>Durante el período de información pública al que se ha sometido el expediente no se ha presentado alegación alguna. |

| | |
|---|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamenduak egin duen txostenean, Departamentuaren eskumeneko gaiei dagokienez ez du eragozpenik ikusi onarpena emateko. | El Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha emitido informe, en el sentido de que no existe inconveniente, en lo que respecta a las competencias de aquel Departamento para su aprobación. |
| Sustatzailea den BISTA ALAI, SA enpresak aurkeztu du, udalaren aurrean, hasierako onarpen erabakiko 4. puntuan eskatzen zen banku-abala. | La promotora, BISTA ALAI, S.A. ha presentado ante el Ayuntamiento el aval bancario exigido en el punto 4. del acuerdo de aprobación inicial. |
| Udal zerbitzu tekniko eta juridikoek egin dituzten txostenak ere ikusi ditu Batzordeak. | La Comisión ha visto, por otra parte, los informes técnico y jurídico emitido por los servicios municipales, |
| Horiek horrela, ekainaren 30eko 2/2006 legeko 156 artikuluak xedaturikoaz bat, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, | Por ello, y de conformidad con lo dispuesto en el art. 156 de la Ley 272006, de 30 de junio, y la propuesta emitida por la Comisión de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, |
| **ERABAKI DU** | **ACUERDA** |
| **LEHENA.-**"6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin betiko izaeraz onartzea, honako baldintzei lotuta: | **PRIMERO.-**Aprobar definitivamente el Programa de Actuación Urbanizadora del subambito "6.1 San Cosme y San Damian", con las siguientes condiciones: |
| 1.-Bigarren (2.) eta hirugarren (3.) faseen lehen erabilerako lizentziek nahitaez bete beharreko baldintza izango dute 1. fasearen lehen erabilerako lizentzia aurrez emana egotea edo lizentzia horiekin batera ematea. Gainera, baldin eta 2. fasearen lehen erabilerako lizentziaren eskaera egiterakoan ez bada hasi 3. fasearen exekuzioa, lizentzia hori lortzeko, azpiesparrua urbanizatzeko obra guztiek eginda egon behar dute eta 2. faseko eraikinaren mehelina forratu egin behar da, apaintasun-baldintza egokietan edukitzeko harik eta 3. fasea gauzatzen den arte. | 1.-La licencia de primera utilización de las fases 2 y 3 estará condicionada de manera inexcusable al otorgamiento previo o simultáneo de la licencia de primera utilización de la 1ª fase. Además, en el caso de que en el momento de la solicitud de la licencia de primera utilización de la segunda fase no se haya dado inicio a la ejecución de la tercera fase, para obtener dicha licencia deberá ejecutarse la totalidad de las obras de urbanización del subámbito y deberá forrarse la medianera del edificio de la segunda fase para mantenerla en condiciones de ornato hasta la ejecución de la tercera fase. |
| 2.-Testu bategin bat aurkeztu behar da, II. 1 planoa zuzenduta (Exekuzio-unitatearen | 2.-Se entregará un texto refundido rectificando el Plano II. 1 (Delimitación de la Unidad de |

| | |
|---|---|
| mugaketa eta lurzoruen lagapena). Egokitu behar da ordenazio xehatuan ezarritakora. Espazio publikoen eta pribatuen definizioa (sistema lokalen sarea) hirigintza-ordenazio xehatuaren zati da, hortaz, urbanizatzeko jarduketa programa batek (hirigintza-exekuzioko dokumentua) ezin du, ez haren kontrakorik jaso, ez hura aldatu, ez baitu eskumenik horretarako. | ejecución y Suelos de cesión). Se adecuará a lo establecido en la ordenación pormenorizada. La definición de los espacios públicos y privados (red de sistemas locales) forma parte de la ordenación urbanística pormenorizada, por lo tanto, un Programa de Actuación Urbanizadora (Documento de ejecución urbanística) no puede contradecirla ni modificarla puesto que no es un documento competente para ello. |
| 3.-Garajeen sarreran dagokion bide-zorra ezarri behar da. “6.2 Ibarralde kalea 1, 3 eta 5” azpiesparruaren alde. | 3.-Se establecerá la correspondiente servidumbre de paso en la entrada de los garajes, a favor del subámbito “6.2. Ibarralde kalea 1,3 y 5”. |
| 4.-Hiri-azpiegiturak direla eta, AE017049 txostena bidaliko zaio sustatzaileari ezarritako baldintzak kontuan izan ditzan urbanizazio-proiektua idazterakoan. | 4.-Se remitirá el informe AE017049 en relación a las infraestructuras urbanas al promotor para que se tengan en cuenta las condiciones impuestas a la hora de la redacción del proyecto de urbanización. |
| **BIGARRENA.-** "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua Urbani-zatzeko Jarduketa-Programaren behin betiko onespenari buruzko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, horrekin batera, baita edukien laburpen bat ere, laburpenean jaso beharreko puntuak ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 156.5 artikuluan zehazten direnak izango direlarik. | **SEGUNDO.-** El acuerdo de la aprobación definitiva del Programa de Actuación Urbanizadora para el subambito "6.1 San Cosme y San Damian" se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa así como un resumen de su contenido. Los puntos a recoger en dicho resumen vienen determinados en el artículo 156.5 de la Ley 2/2006 de Suelo, de 30 de junio. |

**4.- <u>56-/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.</u>**

Kontuhartzailetzak **56/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.193,77** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**<u>LEHENA</u>.- 56/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**<u>BIGARRENA</u>.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**.-.-.-.-.-.-.-.-.---.-.-.-.-.-.-.-.-**

Kontuhartzailetzak **57/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **412.537,99** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**<u>LEHENA</u>.- 57/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**<u>BIGARRENA</u>.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA** **Beh. Beh. IDAZKARIA**